# BAINURA!

Testua eta marrazkiak: TARO GOMI

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrez koadernatua. 20 x 24 cm. 40 or. 16 €

ANDERSEN 2010 SARIKO FINALISTA (ITALIA)

Hizkuntza hauetan ere:

**Bainura!** (euskara)
ISBN 978-84-9172-339-4. Album irudidunak. Egile-lanak.

**¡A bañarse!** (gaztelania)
ISBN 978-84-1343-234-2. Álbum ilustrado. Obras de autor/a.

**A bañarse!** (galegoa)
ISBN 978-84-1343-233-5. Álbum ilustrado. Obras de autor/a.

**Som-hi, a banyar-se!** (katalana)
ISBN 978-84-18558-70-2. Àlbum il·lustrat. Obres d'autor.

**Já para o banho!** (portuguesa)
ISBN 978-972-8781-97-2. Álbum ilustrado. Obras de autor/a.

**Vai a fare il bagno!** (italiera)
ISBN 978-84-1343-223-6. Albo ilustrato. Gli albi di autore.

*«Lehoi! Kendu arropa eta bainura!»*

*«Baina zer diozu, ama? Lehoi batek arropa kentzea?*

*Tira, beste erremediorik ez badago...»*

Bainuaren ordua atsegin eta josteta unea izan daiteke. Umeen estiloaren antzera egindako irudiekin disfrutatzeko aukera eskaintzeaz gainera, "Bainura!" laguntza tresna ere bada, gurasoek seme-alabei autonomia hartzen lagun diezaieten: garbitzea edo jatea bezalako jarduera errazak helduen laguntzarik gabe egin ahal izateko, portaerazko jarraibideak beharko dituzte autonomoak izaten hasteko.

Haur hizkera orrialde guztiotan topatuko da: onomatopeiak, ikus- eta hitz-jolasak, liburu hurbil eta erakargarria bihurtzeko. Ipuineko protagonistari, haur gehienei gertatzen zaien bezala, nagikeria ematen dio bainatu behar izateak, batez ere jolasari utzi behar izateagatik. Egilearen beste estrategia bat umea lehoiz mozorrotzea da, gizakien eta piztien arteko desberdintasuna agerian uzteko: piztiek ez dute arroparik erabiltzen ez eta xaboiz garbitzen ere.

Txalekoa, praka edo barruko arropa kentzea ezinbesteko urratsak izango dira bainuontzira joateko; baina behin han dagoela, jolasa ez da zertan amaiturik, batez ere bainuaren ordua irudimenez inguratzen denean. Taro Gomi-ren obraren ezaugarrien artean sormen askatasuna eta gizarteko lotsa edo ahalkeak ezarritako arauekin hausteko joera aurki daitezke. Hala, ilustratzaileak umearen biluztasuna erabateko naturaltasunez irudikatzearen aldeko apustua egiten du.




- **Gaia:** bainuaren ordua.
- **Adin egokia:** 3 urtetik aurrera.
- **Nabarmentzekoak:** hizkera eta irudi errazak; haurrei autonomia hartzen laguntzen die; gorputza naturaltasunez irudikatzen du.
- **Liburuaren aurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/bainura-eusk/2

**Taro Gomi**

(Tokyo, 1945)

Kuwazawa Diseinu Institutuan graduatu eta bertan hasi zen industria- eta irudi-diseinatzaile ibilbidea. Hirurehun bat liburu argitaratu ditu Asian ez ezik mundu zabalean ere, adin tarte zabaleko irakurleentzat, hasi berrietatik irakurle helduetara. Bere obrak 15 hizkuntzatara itzuli dira. Nazioko zein nazioarteko hainbat sari jaso ditu, hala nola Boloniako Haur eta Gazte Liburuko Azokakoa. Haurrentzako liburugintzaz gainera, moda-diseinuan, gazteentzako animazioan, CDak eta saiakerak ere egin ditu.





www.Kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela.com etxea

soltxate@pamiela.com